

GIL 57 Arbietoko dolina



Arbietoko dolinaren ikuspegia goialdetik. Hormen bertikaltasuna deigarria da

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**


Lat.: 43° 0' 24,15" N

Long.: 2° 59' 55,03" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 500.112,58 m

Y: 4.761.559,82 m



Nola iritsi

Urduñan BI-625 errepidea hartu, Bilborantz, eta, 800 bat metrora, Arbieto auzora igo-tzen den bide bat dago eskuinean. Prado pasealekua ere esaten diote bide horri. Abiatu eta berehala, Nerbioi ibaiaren gainetik igarotzen da pasealekua, eta, gero, bihurgune bat du eskuinaldera. Berehala, bidegurutze bat agertzen da, eta ezkerreko bidea hartu behar da; 200 bat metrora aurkituko dugu sakonunea.

GILaren deskribapen laburra

Zirkulu-formako sakonune itxi bat da. 70 m inguruko diametroa du, eta eta 10 m sakon da. Ertz malkartsuak ditu, eta hondoa, urez betea. Urduñako diapiroa osatzen duten Trias Keuperreko materialetan —gatzak eta igeltsuak— garatu da.

Geomorfologikoki, torka baten antzeko formazio bat da, baina ez da disoluzio-prozesu baten ondorio, dolina karstikoak bezala, baizik eta zorupearen ezaugarriek erraztutako hondoratzearen ondorio. Haren formazioa azaltzen duten bi teoria daude:

- a) Materialen subsidentzia: Gatzak eta igeltsuak oso material plastikoak dira: Denbora geologikoaren eskalan, masa erdi-likido eta mugikor baten antzera joka dezakete. Hala, goiko geruzek pisuagatik presio handiagoa egiten duten zonetan, materialak desplazatu egiten dira, eta lurra hondoratu egiten da.
- b) Arbietoren kasuan, gatzak eta igeltsuak erraz disolbatzen dira, eta uraren zirkulazioari esker disolbatu dira. Hala, zuloak sortzen dira materialen masan, eta, tamaina batera iristen direnean, gaineko geruzen pisua dela eta, hondoratu egiten dira. Badirudi hori dela azalpenik sinesgarriena, eta, horren arabera, Arbietoko dolina prozesu karstiko baten ondorio litzateke; nahiko ohikoa dira horrelako prozesuak gatz eta igeltsuetan. Badira antzeko beste hondoratze batzuk Urduñako haranean, baina hau da ikusgarriena.

Aipatzekoa da dolinatik 800 m inguru NW-era zuzen joanda La Muera iturburu dagoela. Haren urek sodio kloruroa dute; egitura diapirokoari lotutako iturburu bat da, batez beste 5 l/s-ko emaria duena. Kalitate-kontrolak egiten dizkio, aldizka, hango urari URA Uraren Euskal Agentziak. Urduñako bainu-etxeak iturburu horretatik hartzen du ura, sendatzeko ur mineral gisa erabiltzeko.

Behatzeko punturik onena

In situ, dolinaren ertza.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 69, GIL 70, GIL 109, GIL 114.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 7, GIL 58, GIL 142, GIL 143.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa			●	
	Hidrogeologikoa		●		
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa	●			
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:	Triaseko buztin eta igeltsuetan garatutako geometria perfektuko dolina bat da.				

Bibliografia espezifikoak

- BFA, 1990. *Bizkaiko interes geologikoko guneak*. Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo. 270 or.